

ehbildu



EUSKO LEGEBILTZARREKO MAHAIARI

Miren Larrion Ruiz de Gauna EH Bilduko legebiltzarkide eta bozeramaileordeak, indarrean dagoen Erregelamendua baliatuz, ondorengo **INTERPELAZIOA** egiten dio **Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailburuari, OSOKO BILKURAN** erantzun dezan, **Gasteizko BRT proiektuari buruz.**

ZIOA:

Gasteizen BRT proiektua hezurramitzen ari zela, Gasteizko EH Bilduk egitasmo hori baliabide publikoekin finantzatzeko proposamena egin zuen, Jaurlaritzak planteatzen zuen finantziario eredu publiko-pribatuaren aurrean. Azkenik, 2016ko otsailaren bukaeran Urkulluren Gobernuak ontzat eman zuen EH Bilduren proposamena eta, era horretan, proiektuaren kostua nabarmen merkatu zen. Zehazki, EH Bilduren proposamenak 32 milioi euro aurreztea ahalbidetu zuen, BRTren aurrekontua 101 milioikoa izatetik 68 milioikoa izatera pasatu baitzen.

Horrek ekarri zuen egoerari erreparatuz, EH Bilduk BRTren obrak baliatu nahi ditu Latinoamerika Plazako errotonda berritzeko (15-20 milioiko kostua izango lukeena, gutxi gorabehera), Gasteizko trafikoak duen puntu beltzetariko bat konpondu ahal izateko. Ezin ahaztu, gainera, BRT Latinoamerika Plazako errotondatik pasako dela eta horrek trafiko arazoak areagotuko dituela bertan.

Trafiko arloan gasteiztarrak gehien kezkatzen dituzten arazoetariko bat izanik, premiazkoa da errotonda horretan esku hartzea. Berez, Latinoamerika Plazaren berritzeko ideia bozkatuena izan zen 'Mejorando Vitoria-Gasteiz Hobetuz' udal programan txertatu ziren herritarren proposamen guztien artean.


Finantza-ikuspegi batetik posible da proiektu hori gauzatzea; hortaz, ezin dugu aukera galdu, 55 milioi euroko inbertsio batekin BRT martxan jarri eta Latinoamerika Plaza eraberritu daitekeelako.

Hori dela eta, ondorengo interpelazioa egiten diogu Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailburuari:

INTERPELAZIOA

Asmoa duzu BRT proiektuan Latinoamerika Plaza eraberritzeko obrak txertatzeko, horrek Gasteizko ipar aldean sortzen den trafiko arazo nagusia konponduko lukeela kontuan hartuta?

Euskal Herrian, 2017ko urriaren 30ean


Miren Larrion Ruiz de Gauna

EH Bilduko legebiltzarkide eta bozeramaileordea

A LA MESA DEL PARLAMENTO VASCO

Miren Larrion Ruiz de Gauna, parlamentaria y portavoz suplente de EH Bildu, al amparo del vigente Reglamento, formula la siguiente interpelación a la consejera de Desarrollo Económico e Infraestructuras, para su respuesta en pleno, relativa al proyecto de BRT de Vitoria-Gasteiz.

Justificación

Cuando se estaba plasmando el proyecto de BRT de Vitoria-Gasteiz, EH Bildu de Vitoria-Gasteiz propuso que el proyecto se financiara con recursos públicos, frente al modelo de financiación público-privado que planteaba el Gobierno. Finalmente, a finales de febrero de 2016, el Gobierno de Urkullu dio por buena la propuesta de EH Bildu y, de este modo, el coste del proyecto se abarató ostensiblemente. En concreto, la propuesta de EH Bildu permitió ahorrar 32 millones de euros, ya que el presupuesto del BRT pasó de 101 millones a 68 millones.

Conscientes de la situación que esto ha originado, EH Bildu quiere aprovechar las obras del BRT para reformar la rotonda de la plaza de América Latina (lo cual tendría un coste aproximado de 15-20 millones), con el fin de poder dar solución a uno de los puntos negros del tráfico en Vitoria-Gasteiz. No podemos olvidar, además, que el BRT pasará por la rotonda de la plaza de América Latina y que esto





aumentará los problemas de tráfico en el lugar.

Siendo uno de los problemas que más preocupa a los vitorianos y las vitorianas en lo que respecta al tráfico, la intervención en esta rotonda es absolutamente necesaria. La idea para renovar la plaza de América Latina fue la más votada entre todas las propuestas de la ciudadanía incluidas en el programa municipal "Mejorando Vitoria".

Desde un punto de vista financiero es posible la ejecución del proyecto; por lo tanto, no podemos perder esta oportunidad, porque con una inversión de 55 millones se puede poner en marcha el BRT y renovar la plaza de América Latina.

Por todo ello, formulamos la siguiente interpelación a la consejera de Desarrollo Económico e Infraestructuras.

INTERPELACIÓN

¿Tiene intención de incluir las obras de reforma de la plaza América Latina en el proyecto BRT, teniendo en cuenta que esto solucionaría el principal problema de tráfico que se crea en la zona norte de Vitoria-Gasteiz?

En Euskal Herria, a 30 de octubre de 2017

Miren Larrion Ruiz de Gauna
Parlamentaria y portavoz suplente de EH Bildu

